

...eta **kitto!**

774 zkia. 2011-IX-16

ASTEKARIA

TOKIKOM



Gaztetxea martxan

Matrikula Zabalik

ONGI ETORRI euskaltegiaelbar@telefonica.net

Titulu ofizialak / 30 urteko esperientzia / Ordutegi eta erritmo malguak / Kurtsoa finantzatzeko bekak / Ekintza osagarriak

Tfnoa: 943 70 09 12 / Faxa: 943 82 00 89

EIBARKO



UDAL

EUSKALTEGIA

PORTALEA – Bista Eder, 10

ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEL.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAN
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Irati Bustindui

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HIRUTXUR.- Txokoa, hiru planok egiten duten angelua. "Irutxur baten ezkutau zan, etsaieri igesik".

HOBE / HOBETO / ON BIHARRIAN / ON BIHARREZ.- Inoren mesedetan egiten edo esaten dena. "Hobeto biharrian esan netsan eta txarrera hartu zestan".

HODE.- Hodei, baina trumoi giroa dagoenean. "Bizkai aldetik hodia dator".

HODE LAUSUAK.- Hodei arinak, eguzkiari traba pixkat egiten diete, baiña eguna ilundu barik eta euririk ekarri barik. "Goizian goizetik dagoz oda lausuak".

ESKUTITZAK

ESKERRIK ASKO GUREKIN IZATEAGATIK

Armeria Eskolatik eskerrak eman nahi dizkiegu aurreko zapatuan, Espainiako Itzulia Eibartik pasatzen zela-eta gure eskolaren ateetan jokatu zen Tarte-ko Helmuga aprobetxatuz, antolatu genuen jaialdian lagundu ziguten eta bertan izan ziren guztiei.

Eskerrik asko jaialdian izan zirenei eta, egoteko gogoia izanda ere, bertaratu ezin izan zirenei: garrantzikoena 2012ko urtarrilean hasiko den mendeurrenaren aurretik egiten dihardugun ekitaldiak gurekin ospatzeko borondatea baita.

Egun handia bizi izan genuen, musikaz eta gastronomiaz lagunduta, eta baita lagunez inguratuta ere, betidanik Armeria Eskolaren ezaugarri izan den espiritua edo araua gurekin konpartitzen: adiskidetasuna eta konpromisoa eskolan ikasi dutenekiko eta, euren ikasketak hemen egin barik ere, gure filosofiarekin bat egiten dutenekiko.

Zapatuan izan genuen giroa, bai lasterketa pasazerakoan, eta baita horren aurretik eta gero, men-

deurrenoko gure ekitaldien ohiko joera izango da, beti ere gurekin ospatzeko gogoia dutenekin lagunduta.

Mila esker ekitaldian lagundu ziguten Oberena Harategiari eta El Corte Inglés-i. Mila esker Eibarko Udalari, Zerbitzu Sailari eta berarekin lasterketaren iristea eta txerri erre gozoa dastatzeko aukera izan genuen Miguel de los Toyos alkateari.

Azken finean, eskerrik asko Eibarko herriari eta eskualde osoari hain ondo sentitzen lagundu diguzuelako eta, berriro ere, gure ondoan egotea nahi izan duzuelako.

Gustatuko litzaiguke jaialdian zozketatutako Oberena harategiaren eskaintza izan den saritutako oinarriaren zerbakiaren berri ematea. 957 izan zen zerbaki saritua eta Eibarko Angela Fernándezek jaso zuen. Saritutako zerbakia momentuan bertan agertu bazen ere, kaleratuko genuela agindu genuen.

Mila esker eta ondo izan!

JOSE LUIS NOVOA (Armeria Eskolako zuzendaria)


*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Gorriak eta bi ikusiko genituzke mendeko senideak zaintzen dituztenek grebara joz gero. Gaixoa zaintzen duen senideari 400 euroko diru laguntza ematen zaio, baina zaintzaile horrek zaintzaile izaterik ez badu, 2.000 euroko gastua da zainketa. Horrez gain, zaintzaileen artean hamarretik bat izaten da gizonezkoa. Zer erakusten du horrek? Emakumeei ezartzen zaiela mendeko diren senideen zaintza oraindik ere"

(Angel Padierna, psikiatra)

"Hurrengo belaunaldian, gutxi batzuk kenduta, ez dira gai izango problemak ebazteko. Gaur egungo gazteak gu baino arinago heltzen dira informaziora, baina ez dute adimena lantzen; uste dut darabilten teknologia bakar batek ere ez diela horretan laguntzen. Ramón y Cajal-ek berak ere behin baino gehiagotan aipatu zuen nerbio-sistema osatzen duten neuronak giza-adimeneren norbanako ariketarekin sortzen zirela"

(Juan Manuel Pascual, neurologoa)

**EIBARKO
UDALA****GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

TURISMO IKASTARUAK

Debegesak lau ikastaro eskinduko ditu sektore turistikuan diharduenendako, astelehenian bertan hasita: hillaren 19xan komunikaziño eraginkorra izango da ardatza; urrian 17xan bihargiñekin inteligentzia emozionala zelan aplikatu erakutsiko dabe; azaruan 21ian enpresak eskintzen dituduan zerbitzu eta promozioñuak gomendatzeko bidaia azalduko ditudue; eta abenduan 12xan lantoki bereko bihargiñen arteko komunikaziñoa eta zerbitzua hobetzeko teknikak. Ikastaro guztiak 09.00etatik 13.00era izango dira, Debegesako egoitzan (Azittaingo industrialdian). Informaziño gehiago bihar izanez gero, 943820110 telefono zenbakira deitu leike.

ALDERDI EGUNA

Hillaren 25ian ospatuko dan Alderdi Egunera juateko autobus zerbitzua preparau dabe Batzokixan. Urkizuko geltokittik (Zubi Gain kafeterixa parian) 09.30xetan urtengo da eta Ego Gaiñeko geltokittik 09.45etan. Bueltako autobusa 18.30xetan izango da.

ARRATEKO ZOZKETIA

Jaixak Herrixak Herrixandakok Arrateko jaixetan egindako zozketan honetxek izan dira saritutako zenbakixak: 2.424 eta 3.856. Sarixa jasotzeko azken eguna hillaren 30a izango da.

Gure Balioak Sarirako hautagaitzak

DEBEGESAK, IAZ HASITAKO BIDIARI JARRAITTUTA, AURTEN BE GURE BALIOAK SARIA BANATUKO DAU. Gizarte-balixuetan oiñarritutako bizi-ibilbidia saritu nahi daben sarixak integridadia, erresetua, ekintzailletasuna eta lankidetzakalkarlana moduko giza balixuak sustatu nahi ditu eta iaz M^a Teresa Gantxegik jaso eban Markel Olanoren eskutik. Aurten sarixa nork jasoko daben erabagitzeko hautagaitzak urriaren 7rako presentau leikez. Hautagaixak presentatzeko aukeria Debabarreneko gizarte-agentiak (herritarrek, enpresak, alkartiak, hezkuntza/heziketa zentruak, ikerketa zentruak eta erakundiak) eukiko dabe eta, horretarako, baldintza batzuk euki biharko ditudue kontuan: proposatzen daben hautagaixa Debabarrenian jaixotakua edo bere bizi ibilbidia bertan garatutakua izatia, bere balixuengaittik aittatzekua dan jardunbidia izatia, eskualdiarekin lotura sendua izatia eta bizirik egotia. Informaziño zabalagua jasotzeko www.gurebalioak.com webgunera jo leike.



Mari Tere Gantxegi izan zan iazko lehelengo ediziño sarixa jaso eban, Markel Olano diputatu nagusixaren eskutik.

Armagintzaren Museua FECIEX 2011 azokan

EIBARKO ARMAGINTZAREN MUSEUAK EGUENAZ GEROZTIK BADAJOZEN DIHARDU BERE ARMA-BILDUMA ERAKUSTEN, domekara bittartian martxan egongo dan XXI FECIEX 2011 azokan. Iberiar Ehiza, Arrantza eta Naturari eskindutako ferixia urtero antolatzen dabe eta ediziño bakotxian



gonbidatuak eukitzen ditudue. Aurten, baiña, gonbidatuari eskindutako 1.000 metro karratuko azaleria betetzeko gonbidatu bakarria egotia erabagi dabe antolatzailliak eta, holan, Eibarko Armagintzari eskindutako erakusketa tematikua hartuko dau erakustokixak. Eibarko Museuak dakan arma-bildumako piezarik esanguratsuenak ikusgai ipiñi ditudue, bisitan doiazeneri gure herrixan egindakuen barri emoteko asmoz.

Erretziari lagatzeko ikastarua

UDALEKO GIZARTEKINTZAK TABAKUA ERREZTIARI LAGATZEKO IKASTARUA ANTOLATU DAU. Klasiak iraillaren 29xan hasi eta urrian 6, 20 eta 27xan, azaruan 3 eta 17xan, abenduan 1 eta 15ian eta martxuan 1ian segiduko dabe, 18.30xetatik 19.30xetara. Saiuak Vicente Fernández drogomenpekotasunen prebenziñoan diharduen medikuak emongo ditudu. Interesa dakenak Pegoran emon biharko dabe ize-na, hillaren 26rako. Preziua 30 eurokua da Eibarren erroldatuta daguazeneendako (bestela 50 euro).

RUFINA ALVAREZ PECIÑA

1. urteurrena (2010-IX-13)

**GURE BIHOTZEAN
IRAUNEN DUZU BETIKO**

Etxekoen partez





Iaz baiño ikasle gehixago hartuko dittue herriko ikastetxietan. / ARTXIBOA

4.444 ikasle martxan

KURSUA HASI DA ETA HERRIKO 4.444 IKASLE ESKOLARA JUATEN HASITTA DAGOZ.

Iaz baiño 48 ikasle gehixago egongo dira aurten, hau da, bestela esanda, iaz baiño %1,09 ikasle gehixago hartuko dittue herriko ikastetxietan. Hazkuntzia, batez be, 0 eta urte 2 bittarteko ikaslien taldian emon da. Izan be, iazko ikasturriarekin konparatuz %11,11 ikasle gehixago dagoz. Batxillergo eta Heziketa-Zikluetan, bestetik, %4,47-ko beherakadia egon da. Hizkuntza ereduari begira, haur-hezkuntzan ikasle danak ikasten dabe euskaraz; lehen-hezkuntzan 1.216 ikaslek egitten dabe D eredu

eta 151-k B eredu; DBH-n 627 ikasle dagoz D eredu eta 302 B-n; eta Batxillergo eta Heziketa-zikluetan, euskeraz ikasten dabenen kopurua haunditu bada be, 616 ikaslek dihardu A eredu eta 453 ikaslek D eredu.

60,10 euroko laguntzak

Kurtso hasierarekin batera Udalak ikasleri eskintzen detsen 60,10 euroko laguntzak lortzeko eskaeriak aurkezteko epia be zabaldu da. 'Umeak eskolara' (1996ko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra arte) eta 'Dirulaguntza ikasleei' programak jasotzeko Pegorara jua biharko da.


Bertsolari txapelketako final zortzirenak gurean

GIPUZKUAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINAL ZORTZIRENETAKO SAIUETAKO BAT EIBARREN IZANGO DA, irailaren 24an (zapatuan), 17.30xetan hasita. Emanaldixa Coliseuan izango da eta bertan lehiatuko diran bertsolarixak, barriz, Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola, Jokin Labayen, Nerea Elustondo, Felix Zubia eta

Iker Osa. Saiuaren zein txapelketaren gaiñeko informaziño osua www.gpunktua.com webgunian jaso leike. Saiorako sarrerak be webgune horretan erosteko aukeria izanga da, saio aurreko astian bertan. Interneten danak saltzen ez badittue, Coliseoko leihatillan be izango da horretarako aukeria saio egunian bertan.

Juan Lazpita hil da

TRIO LAZPITA TALDEKO ABESLARIXA AURREKO ASTIAN HIL ZAN, 90 urterekin eta azken agurra emoteko ekitaldixa Txaltxa-Zelaiko auditorixuan egiñ eben. Juan Lazpitak bere abizena hartu eban hirukotia osatu eban 1940ko hamarkadan, iaz 88 urterekin hil zan Alejandro Gisasolarekin eta Eusebio Oruetarekin batera eta hainbat hamarkadatan, 1990era arte, jarraitu eben alkarrekin, Euskal Herri osuan denetarik kantatzen. "Los Panchos" taldiarekin be parte hartu eban taldiak eta geruago Eibar Kantuan ekitaldixan be sarritan jardun eben.



Toyos Eudeleko komisiñoko buru

MIGUEL DE LOS TOYOS EIBARKO ALKATIA EUDELEKO GIPUZKOAKO KOMISIÑUAREN BURUA IZANGO DA. PSE, EAJ eta PP alderdixak daken hitzar-menak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako al-

kartiaren lurralde komisiñuetako kandidaturak hartzen dittu eta baktzeko burua Gasteizko alkatia dan Javier Maroto (PP), Getxoko alkatia dan Imanol Landa (EAJ) eta Eibarko alkatia dan Miguel de los Toyos (PSE) izango dira. Komisiñoko buru izendatziarekin pozik agertu da De los Toyos, "udalerrixen interes komuneko proiektuak kudeatzia errezagua" izango dala pentsatzen dabelako.

Auzuetako billeren itzuleria

OIN DALA HAMARKADA BAT EGITTEN ZAN MODUAN, AUZUETAKO BILLERERI EHINGO DETSE atzera be hillebete honetan bertan edo hurrenguan. Holan, Udaleko arduradunak auzuetako jendiarekin batuko dira herritarren iritziak, kezak eta kejak entzun eta jasotzeko. Miguel de los Toyos alkatiaren berbetan, "bizilagunen eta Udalaren arteko hartuemonak indartzia nahi dogu, eta konturatu gara horretarako formula onena zuzeneko kontaktua dala". Jarraituko dan dinamikia lehen egitten zanaren modokua izango da. Holan, Udaleko talde bat erregular auzora gerturako da eta bertako lokal batian billera irekixa egingo dabe bizilagunekin.



Indarkerixa matxista salatzen

HILLAREN 6-XAN ORDU ERDIKO ALKARRETARATZIA EGIÑ EBEN UNTZAGAN, udaletxiaren parian, aurreko domekan Eibarren gizonezko batek arrebia aizkorarekin erasotu eballa eta, hori eta antzerako eraso guztiak salatu eta gaitzesteko.

asteko

1.800

datua

autotik gora eruatzen ditte garabiak gure herrixan urtero. Gidarixek 39 euroko isuna ordaindu bihar izaten dabe autua Matsarixatik jasotzeko eta toneladatik gorakuenak 69. Azken hamarkadian garabiak eruandako autuen kopuruari begira, 2004an egiñ eben zerbitzu gehixen, 2.162rekin.

Ospitalarendako lurra “kutsatuta” dago

BILDU ETA ARALARREKO ORDEZKARIXAK PRENTSAURREKUA ESKINDU EBEN EGUAZTENIAN, OSPITAL BARRIXAREN PROIEKTUAREN GAIÑIAN dittuen kezkek azaleratzeko. Bestiak beste, oindiok be proiekturik ez daguala salatu dabe eta, beraz, orubea erostia “arriskutsua” izan leikiala “gero ospittala egitten ez bada”. Horrekin batera, expropiaziñua erabillitta lurra merkiago lortu leikiala diñue eta, gaiñera, orubearen gaiñeko baloraziñua egitterakuan ez dala kontuan hartu kutsatuta daguala. Izan be eta euren berbetan, “ospittala eraiki nahi dan orubia kutsatuta dago”.

Udalak “ez dabela egixa esaten” be aittatu eben alderdi bixetako ordezkariak: “Ospittalan (Mendiguren y Zarrauan) egin bihar dala azaltzen daben planik ez dago eta oindiok be ez dago zihezutako aurrekonturik”. Aurrekarixak ikusitta, “fi-



Aralar eta Bildu taldekuek eguaztenian emondako prentsaurrekuaren irudixa. / EKHI BELAR


datzerik ez daguala” pentsatzen dabe. Gaiñera, Udalak orubearengatik 5 millioi euro ordainduko dittuala diñue, baiña lurra arretik bertan egon dan industria jarduerarengaittik kutsatuta daguala kontuan hartuta, pagau biharrekua gitxiago izan biharko litzakela pentsatzen dabe Bildu eta Aralarrekuak. Gauzak holan, ez dabe ulertzen zergaittik ez daben expropiaziñuaren bidia jarraitzen eta lurrak dakan kutsadura gar-

bitzeko biharrek kostauko daben millioi bat euroak nork pagauko dittuan galdetzen dabe. Izan be, lurraren legiak jasotzen dabenez, orubea saltzen dabenak dauka kutsadura garbitzeko biharrek ordaintzeko arduria.

Edozelan be, alderdi bixak ospittala egittiaren alde agertu dira, “leku hartan bertan izanda be, baiña ezin dira ibilli egi-erdixak esaten eta eibartarrendako gainkostuak ezartzen”.

UCAS de Arratekuak bikain Arnedon

EIBARKO ERRESKATE TXAKURREN UNIDADIAK (UCAS DE ARRATEK) OIN DALA EGUN BATZUK ARNEDON (ERRIOXAN) EGINDAKO KONZENTRAZIÑUAN parte hartzen jardun eban, salbamenterako simulakro eta bestelako lanak egitten. Bestiak beste hondakiñen azpitan harrapatutako lagunak, mendixan



galdutakuak eta bestelakuak topatzeko ariketak eta bestelakuak egitten emon eben asteburua hainbat tokitatiek juandako taldiak eta eibartarrak bikain jardun eben: batetik Valeriano De la Calle eta Oker txakurak marka guztiak hautsi zittuen eta euren maillan lehelenguak geratu ziran, bi kilometro karratuko azalera biktima lokalizatzeke 2 miñutu eta 32 segundu erabillitta. Horrez gain, maila baxuaguan jardun eban Zuri 9 hillebeteko txakurkumiak be lehelengo postua eskuratu eban, Vanesa gidarixarekin. Eibartarrak, beraz, pozzarren bueltau ziran etxera.



Valeriano eta Vanessa, gure herriko taldearen ordezkariak Errioxan.

MIGUEL LOPEZ DE GUEREÑU UCIN

1. urteurrena (2010-IX-14)

Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

ZURE FAMILIA



Facebook, Twitter, Tuenti... zerrendia haundixagua da, baiña seguru irakurle gehienguak entzun dabela noizbait halako izenen bat. Sare sozialak geratzeko heldu ziran gurera eta jendiaren artian oso zabaldua dagoz gaur egunian.

Sare sozialak erabiltzen dozuz?



NEKANE IBARLUZEA
29 urte
saltzaillia

Facebooken egunero ibiltzen naiz. Modu ona da denpora askuan ikusi ez dozun jendiarekin komunikatzeko. Halanda be, gehixegi erabiltzia kaltegarria izan leike, izan be, denpora asko galdu zeinke bertan. Erabilleria kontrolatu ezker, ondo daguazela begittantzen jata.



ANDER ARROITAJAUREGI
38 urte
luthierra

Erabili erabiltzen dittut, baiña helburu publizitarixuekin batez be. Lagunak be topau izan dittut bertan. Erabilgarriak dirala begittantzen jata, publizidadia egitiko balio desta eta lagun batzukin kontaktuan egoteko be bai.

MONICA VILLALBA
36 urte
etxeoandria



Bai, erabiltzen dittut. Gustatzen jatazen gauzak dittue, beste pertsona batzuekin kontaktuan egotia, adibidez. Erabilgarriak dirala begittantzen jata. Hemendik kanpo daguazten eta denpora askuan ikusi ez dittudan lagun batzuk aurkittu dittut bertan eta kontaktuan gagoz oiñ horri esker.

SIMON MELERO
40 urte
tornerua



Ez dittut erabiltzen. Ez dakat interes handirik. Begittantzen jata badakela erabilgarritasuna, baiña nik nahixago dot jendiarekin kontaktua beti egin dan moduan egittia, modu zuzenian eta pertsonalki.

BATZOKI jatetxea

EGUNEKO MENUA:
14'5 euro (BEZ barne)

Ego Gain, 1 - behea

ASTEBURUKO MENUA:
20 euro (BEZ barne)

MENU DEGUSTAZIOA:
35 euro (BEZ barne)

TALDEENDAKO MENUAK

RAZIOAK BARRAN

Entsaladak


Legatza frijitua 9 euro

Urdaiazpiko iberikoa . 8 euro

Sepia plantxan 6 euro

Olagarroa 6 euro

Filetea 9 euro



Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatzoekia.com

IGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizta 20 - behea, eskuna

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa labea


Egoiberran (Signo poligonoan)
Partikelak, mutua eta otegi onetako zerbizuek
Korak - Eskelak - Uteurrandako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen bertan da lugu
Nazio eta Nazioarteko irazleok

Mugica Erorketa
Funerariak taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Urtarrillaz geroztik eta abuztua bittartian, hilliak emon dittu kalian batzen gazte talde batek, Asua Errekako gaztetxiak atiak itxi eta gaztetxe barrixa sortzeko gogua bultzatuta. Azkenian, ekiñaren ekiñez, euren ametsa gauzatzen ikusi dabe, Iparragirre kalian hutsik eguan lantegixa abuztuaren azkenian okupatziarekin batera. Garbiketa eta txukuntze biharrek amaitsu barik egonda be, gauzak egitteko ilusiño haundixarekin topau doguz gaztiak.

Cadenas Iris tallarraren atetik parera begiratzen badogu, hantxe ikusten da Tallarra gaztetxiaren sarrerria izan zanaren arrastua. Igazko abenduaren 3an hustu bihar izan eben han martxan eguan gaztetxia, bertan egin biharreko lanendako traban eguazen eta. Bertakuak ez ziran konforme juan eta euretako batzuk segiduan hasi ziran mugitzen, gaztetxe barrixa zelan eta nun sortu leikian pentsatzen. Kalian batzen hasi ziran eta lehengo gaztetxe-



Lokala erabilli ahal izateko, gogotik jardun dabe biharrian azken astiotan.

ko asanbladatik eguan taldiari jende barrixa batzen juan jakon. Eta holan, kalian egin-dako billeretan juan zan gaztetxe barrirako proiektua sortzen eta gorpuzten. Gaztiak azaldukatuari jarraituta, "hasieratik argi ikusi genduan lokala barrixa gure kabuz, instituziñuetatik kanpora billauko genduala, Udalak eskindutako aukerak lotsagarrixak ziralako. Bestiak beste Matsarixan, goixan, teillatu bariko tallar zahar bat, Azittaingo lantegi eskolia edo Sakunen, 'pulmoietako' bat, horretxek ziran Udalak emondako aukerak. Herrixan emakumiendako puntu beltzak jasotzen dittuan mapia egitten dabe batetik eta bestetik nora bialdu nahi dabe gazterixia?".



Gaztetxe barrixa martxa betian

Lokal egokixa billatu bittartian, funtzionatzeko modua be zihezten juan ziran: "Lokala okupautakua izango zala argi ikusi genduan eta, bestalde, asanblea bidez funtzionatzeko erabagixa be segiduan hartu genduan. Eibarren erabilli bariko espazio morduia dagozela pentsatzen dogu eta horretako bateri bizittasuna emoteko aukeria ikusten genduan, diruak horrenbeste baldintzatu barik gauzak egitteko aukeria badaguala erakustiarekin batera. Eta holan ekin jakon lokala billatziari, herrixan gora eta behera ibillitta".

Ezerezian geratu zan okupaziño saiakera baten ostian, abuztuan Cadenas

Iris-en eraikiñera sartzia erabagi eben:

"Oso modu lasaixan juan zan dana. Goikaldoko atietako bat zabalik topau genduan (gure aurretik hamen ibillitta dagoz) eta handik sartu giñan, ate edo bestelakorik apurtu barik. Ertzaintza etorri eta identifikaziñua eskatu zeskun, baiña gure kontrako salaketarik ez daguan, beste barik, datuak hartu eta juan egin ziran. Okupau dogun zatixan oin dala

hiruzpalau urte itxi zittuen buleguak egon ziran eta batez be papel zaharrak eta hola-kuak kendu bihar izan dittugu".

Jabien seiñale barik

Edozeiñ edifizio "okupau" aurretik, baiña, pauso batzuk segitzen dira, ez da edozeiñ tokittan beste barik sartzen. Bestalde, okupau bihar dan lokaleko jabieri alde aurretik asmuen barri emoten jakue, ahal dala behintzat. Kasu honetan edifiziuu Amena-bar promotorarena zala jakiñ eta bertako ugazabekin berba egitteko hainbat saiakera egin zittuen, "baiña oiñ arte ez deskue ezer esan. Hasieran bulegoko neska batek jefiak oporretan eguazela eta bueltatzian gurekin berba egingo ebela esan zeskun. Gurekin kontaktuan ipintzeko modua lagata be iñork deitzen ez ebala ikustian, zuzenian Zarautzera, euren egoitzara juan giñan baiña holan be ez genduan gauza haundirik



Antolatuko dittuen ekitaldixen artian, konzertuak egongo dira bestiak beste.

aurreratu eta oindiok be hamen segitzen dogu, bardin, euren barri izan barik. Lantzia behin epaitegitik pasatzen gara, ia batenbategi gure kontrako salaketarik ipini daben ikustera, baiña oiñ arte ez da nobederik izan”.

Bixen bittartian, lokala txukuntzen eta garbitzen, egunero biharrian dihardue eta honezkero inauguraziño jaialdixa be egin dabe, iraillaren 2xan: *“Oso pozik gagoz, 150 bat lagun alkartu giñan, edade diferentietakuak, gurasuak be animau ziran. Trikipoteuan ibilli giñan herrixan eta danon argazkixa etara ostian merendolarekin segidu eban jaixak barruan”.*

Jendiaren harrera ona

Inguruan etxiak egonda, gaztiak argi dake jendiarenganako errespetua zaindu bihar dabela, horregaittik edozer antolatzen dabenian inguruko etxequeri idatzi bittartez emoten detse egingo dabenaren barri eta ordutegixa zaintzen ahalegintzen dira. Bestalde, biharrian jardun daben bittartian ingurutik pasau dan jendiaren aldetik oso harrera ona izan dabela kontau deskue: *“Atia zabalik ikusi eta edade guztietako jendia*

Asanbladak eguzten eta domeketan egitten dittue 19.00etan

gerturatu jaku zertan genbiltzan jakin nahixan. Anekdotu modura, egun batian bat kristalak zelan garbittu dittugun galdetzeru etorri jakun, berari ez jakozelako horren garbi geratzen. Neguan zine-kluba antolatzeko asmua dakagula jakin eta interes haundixa erakutsi daben besteren bat be agertu jaku. Programaziñua poliki poliki osatzen juango gara, dittugun aukeren arabera, baiña atzo Napoka Iria taldekuak kontzertua emon eben eta datozen egunotarako torturaren gaiñeko monologua, bazkari-xa, hamen etaratako erretratuen proiekti-



Behin-behiñeko sukaldia inauguraziño egunian bertan estrenau eben gaztiak.

ñua eta beste hainbat dakaguz esku artian. Dantza ikastaruak, gimnasioa, mendi irteerak eta bestelako tallarrak eta dittugun aukeren arabera antolatzen juango gara. Dana dala, proiektuarekin bat egin nahi daben edozeiñ ongietorrixa izango da. Eguazten eta domeketan egitten dittugu asanbladak, 19.00etan. Bestalde, eibarko_gazte_asanblada@hotmail.com helbidera be idatzi leikie”.



JADA KALEAN!

BESTELAKO GIROA GUSTUKO DUGUNONTZAT

IRAILAK 22tik HASITA

OSTEARRERO ETI DOIARRIK AURREREA

PINTXO + POTE = Euro '1

OSTIRAL ETA LARUNBATETRA, DOIARRIK AURRERA

GAU-GIROA, MUSIKA APARTA

IRAILAK 23, 00:00 LEHEN GIROA DANTZAN

KARRIKAN: dj OSORON - SUBEROAN: dj KARBA

KARRIKA TABERNA HTP/KARRIKON



TEEN-
AUEA

Unibertsitatean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan du azken hiru hilabeteetan Yanire Sagredok. 21 urteko eibartarrak liburuak Madrilen laga eta Radio Eibar Cadena Ser-en praktikak egin ditu. Esperientzia oso baliagarria egin zaio eta karreraren azken urteari ekingo dio berehala.

YANIRE SAGREDO, Kazetaritza ikaslea:

“Irratiak ez ninduen hainbeste erakartzen”

- Nola sortu zizaitzun Radio Eibarren praktikak egiteko aukera?

Unibertsitateko praktikak 5. mailan egiten dira normalean, hau da, kurso honetan egin beharko nituzke, baina nik udan egitea erabaki nuen. Orduan, madrilen ez geratzeagatik, Eibarrera etortzea pentsatu nuen. Prentsa eta irratiaeren artean erabakitzea zen hurrengo pausoa, eta aitak Radio Eibarrekin berba egin zuen. Ez zuten arazorik ipini eta horrela hasi nintzen.

- Aurretik izan zenuen inongo esperientziarik kazetaritza munduan?

Ez. Gainera, esango nuke irratia zela gutxien erakartzen ninduen hedabidea. Probak pentsatu nuen, ea gustatzen zitzaidan; izan ere, gustokoago nituen argazkilaritza edo idatzizko prentsa. Praktikak ziren, beraz, ez nuen ezer galtzeko.

- Eta nolakoa izan da esperientzia?

Egia esan, gustatu zait. Ez dakit hau ona ala txarra den, ez bainuen pentsatzen irratimun-

duan murgiltzea. Agian horrela izan da Eibarren aritu naizelako. Hedabide lokala delako eta denetarik egin dudalako. Madrilen arituko banintz, agian, nor daki nongo departamentuan egongo nintzateke lanean, ez dakit nolako lana egingen... Gustatu zait Eibarko lanaren presioa.

- Espero zenuena zen?

Ez. Gauza gutxi egingo nirela uste nuen, fotokopiak atera eta abar. Baina inolaz ere, denetarik egin dut eta berehala hasi nintzen esatari bezala.

- Hiru hilabete egin dituzu. Kurtso intentsiboa egiteko haina denbora.

Hasierako hainbat pasarte ipini zizkidaten nola aritzen nintzen erakusteko, eta bai, alde handia igartzen dut hasi nintzenetik orain arte.

- Orain karrera amaitzera.

Bai, eta gero ez dakit zer egingo dudan. Lehen nuen ideia pixka bat aldatu zait, irratia leiu berria ireki dit, eta zailtzak dauzkat. Agian beste gauza batzuk probatu beharko nituzke konparatzeko. Badut astia horretarako.

www.aldatze.org

Ikasturte berria AUKERAK jasotzeko,

emateko,

sortzeko garaia izan dadila !!

aldatze

Arrateko zelaiak, urtero ohitura denez, Kezka dantza taldearen ikuskizuna jaso zuen Arrate Egunean. Bertan bildutako jendetzak eibartar hauen trebezia ikusi ahal izan zuen. Baina ez hori bakarrik. Kezkako nagusien taldeko dantzari bezala zazpi gazteren estreinua ikusi baitzuten.

Berritzeko KEZKArrik ez

Mende erdia baino gehiago darama-tza martxan Kezkak eta batek daki zenbat urte gehiago jarraituko duen. Izan ere, erreleboa ez zaie faltako orain dantzan dabilzenei. Argi geratu zen hori Arrateko zelaian joan den astean. Zazpi dantzari gazte berrik egin zuten dantza nagusien taldearekin, Kezkak harrobi sendoa daukala erakutsiz. Eta ez hori bakarrik, Eibartik kanpoko eta gonbidatutako hainbat dantzari ere hartu zuten parte ekitaldian.

Kezka dantza taldeko Oier Araolazaren



Kezkako dantzarien Arrate eguneko erakustaldia: zazpi dantzari gazte berrik debutatu zuten bertan. / LEIRE ITURBE

berbetan, "nagusien taldearekin dantza egiteko prest dauden dantzariak dira, adinean eta altueran gora egin dutenak, beraz, urrats bat gehiago izan da eurentzat". Ez da, beraz, aldaketa bat izan, prozesu baten jarraipena baizik.

Dantzari gazte hauen lehen dantzaldia izan zen Arratekoa nagusiekin, "baina urte bat zeramatzaten entsaiatzaren gurekin". Araolazak aipatzen duenez, "ondo entsaiatuta zegoen zer egin behar zen eta dena ondo irten zen". Ez zen igarri, beraz, lehen aldia zela batzuentzat. Dantzarien maila erakusten du horrek, bai taldean zeudenena, bai hasi berri direnena, eta dantza-eskolan egiten den lan onaren erakusle da.

120 lagun dantza-eskolan

Kezkaren nagusien taldea 30-35 pertsonek osatzen dute, urtean zehar hainbat eta hainbat dantza-saio eta ikuskizun erakusten dituztenak, baina dantza-eskolan dantzari kopurua handiagoa da. 6 eta 16 urte bitarteko 120 bat neska-mutilek osatzen dute eskola Araolazaren berbetan eta, bestetik, 30 nagusi ere daude bestelako dantzak ikasten.

Eskolan dauden 120 ikasleak 15-16 taldetan banatzen dira eta irailaren amaieran hasiko dituzte klaseak. 6 urtetik gorako edonor joan daiteke dantza-eskolarara, eta izen-ematea atzo egin bazen ere, irailaren amaieratik aurrera ere apuntatu ahal izango da jendea.

urriak
2

KLIK!

KMK2011 AZPEITIA
EUSKAL HERRIA

7
euro

AUTOBUS zerbitzua:
IRTEERA 10.00etan, Ego-Gainetik
BUELTA 19.00etan, Azpeititik

- J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte

- ...eta kitto! Euskara Elkarte

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 10 Barne Medikuntza |
| 2 Zirurgia | 11 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 12 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 14 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 15 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 17 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |

Datorren astean Eibar pixka bat galziartu egingo da. Galziaren Eguna Euskadin jasoko du herriak hilaren 22tik 25era eta ekintza ugari antolatu dira egun hauetarako. Programaren ardura 'As Burgas' Eibarko Galizia Etxeak darama eta bere presidenteak, Amilcar Dos Santosek, etengabe lan egiten du dena ondo irtetzeko.

- Zelan egiten dio aurre 'As Burgas' Galizia Etxeak XXVI. Galziaren Eguna Euskadin delako jaiaren prestaketari?

Lan handia eginez, baina gogo eta ilusio askorekin dena ondo irten dadin. Gero ikusiko da emaitza nolakoa den.

- 'Dia das letras Galegas' delakoetan eibartarren begiak izaten dituzue gainean gehien bat, baina oraingoan Euskadi oso-tik etorritako jendearenak izango dituzue. Erantzunkizun handikoa zuentzat?

Erantzunkizun handiagoa daukagu orain arrazoi birengatik. Bata, Euskadi mailan egingo den jai izango delako. Eta bestea, 'Dia das letras Galegas' urtero egiten dugun zer-bait delako eta gure kontura ia nahigabe prestatzen ditugulako, baina oraingo honetan ezberdina da eta interes gehiago jarri behar dugu dena prestatzerako orduan modu batean esatearren. Euskadin 12 Galizako Etxe gaude eta gure txanda heldu da orain. Espero dugu denak pozik geratzea.

- Hamabi etxe zarete Euskadin. Honen prestaketa zuen esku dago bakarrik?

Bai. Euren lagundu egingo digute, baina prestaketaren %80 gure esku dago.

- Lehen aldia da Galziaren Eguna Euskadin izeneko jai Eibarren egiten dena. Zergatik, bada, orain Eibarren? Nolako irizpidea jarraitzen duzue txandaketa egiterako orduan?

Orain dela hainbat urte komentatu zidaten jai hau prestatzeko ardura hartzeko, baina sa-soi hartan Untzagako plaza obretan zegoen



AMILCAR DOS SANTOS, Galizia Etxeko presidentea:

“Giro bikaina biziko dugu Galziaren Eguna Euskadin”

eta ezin izan zen gauzatu. Iaz berriz aipatu zidaten jai Eibarren egiteko aukera eta onartu egin genuen. Baiezkoa eman aurretik, hala ere, alkatearekin berba egin eta berak aurrera egiteko esan zidan, Eibarrek horrelako zer-bait merezi zuelako. Udalaren aldetik laguntza handia jaso dugu.

- Zer azpimarratuko zenuke jaiaren programa guztiaren gainean?

Programa indartsua da. Giro ona biziko da egun horietan. Jaiak antolatzeko batzordeak nire esku utzi zuen programaren diseinua maila handian eta 'Dia das letras Galegas' jaietan hartutako esperientzia kontuan izanik, ez zait egunean zehar espazioak uztea gustatzen. Hau da, ekintza bat arratsaldeko 14.00etan ipintzea eta hurrengoan 20.00etan. Orduan, egun osoan zehar zer-bait egongo da, egun osoko edozein momentutan etortzen denak ekintza batean parte-hartzeko aukera izateko.

- Patxi Lopez eta Alberto Nuñez Feijoo etortzekoak omen dira.

Nuñez Feijook ezin izango dela etorri esan digu. Mexikora joan behar du eta kontseilari bat bidaliko du. Patxi Lopezek, berriz, agenda

oso bete da aukala esan digu, baina ahalegin-duko dela etortzen.

- Eibarren handia da galziarren komunitatea. Zergatik uste duzu gertatu dela hori?

Beno, nik nire kasuak bakarrik egin dezaket berba. Nire herrian nekazaritzan lan egitea besterik ez zegoen eta ez zuen askotarako ematen. Jan eta edateko, besterik ez. Nik zer-bait gehiago nahi nuen eta hona etorri nintzen. Gustatu egin zitzaidan eta 43 urte daramatzat ordutik hemen. Etorrizunean jubilatuko ezker, hemen jarraituko dut.

- 'Morriña'-rik ez dago?

Bai (barreak), baina egun batzutarako hara joan eta nahikoa da. Gainera, honezkero ez daukat familiarik han, semeak hemen daukat... hemengoa naiz.

- Zer esanahi du zuretzat, pertsonalki, Galziaren Eguna Euskadin hemen ospatzea?

Ilusio handia egiten dit. Pentsatzen dut Eibarrentzat ona dela eta, era berean, baita 'As Burgas' Galiziako Etxearentzat. Hori dena ondo irtetzen bada, gaizki joanez gero alderantziz izango dela pentsatzen dut. Espero dut kritika onak jasotzea.



CARLOS DEL RÍO ROJO
(2011ko irailaren 11n hil zen,
62 urterekin)

SOZIEDADEKO KIDEAK

Sari guztiak banatu genituen

Arantzazu eguna Gipuzkoan jai izanik, asteburu luzea genuen eibartarrok Arrateko jaiak behar den moduan ospatzeko. Eta urteroko moduan, zerura begira pasatu genituen aurreko egunak eta esandakoak bete ziren: eguraldi ezin hobea izan dugu egunero. Goizean goizetik zegoen jendea Arraten, batzuk gaur pasata eginda, beste batzuk sasoz oinez igota. Lehenengo autobusekin batera, jendea batzen hasi zen.

Hiru mila saritik gora zituen Kittonbolak, guztiak banatu nahian eta goizean goizetik txokoa atontzen ibili eta gero, goizeko hamarrak puntuan, Arrateko elizako kanpaiek lagunduta, saldu ziren lehenengo boletoak. Handik gutxira irten zen lehenengo opari



LEIRE ITURBE


handia, handia beneran Alfako gosari kitaren kaxa; pozarren joan ziren irabazleak. Jarraian, besteak beste, boligrafoak, jamiak, kamisetak, disko gogorrak eta komunerako kit-ak.

Aurten ETBko kamarak ere izan ziren, hainbat sari zelan banatzen ziren zuzenean ikusi zuen batek baino gehiagok, Orbearen bizikleta barne. Eta gutxika gutxika, batzuk "jarraitu jokuan", besteek oparia, Kittonbolia hustea lortu genuen arratsaldeko 17.30etarako. Horregatik eskerrak eman behar ditugu, egunean 3.000 sariak banatzea lortu genuelako.

EGUNEROKORAKO LAGUNTASUNA

Eskerrik asko opariak eskaintzen parte hartu duzuen enpresa, komertzio eta dendei hasteko (hurrengo orrietan dituzue horrek opariok eman dizkiguten guztien izenak). Horrek barik ezinezkoa izango litzateke sari kopuru hori ematea, beraz eskerrik asko, zuek ere bizitzen diharduzuen egoera gogorrean gurekin bat egin duzelako.

Eta Kittonbolan parte hartu zenuten guztioi ere eskerrik asko. Gure egunerokotasunerako garrantzi handia du Kittonboliak eta aurrera jarraitzen, hitzaldiak antolatzen eta gure abar luzean eragingo du laguntasun horrek. Arrate egunean gastatutako eurotxo horrek ematen du fruiturik. Guztion artean euskarak Eibarren bere lekua izan dezan.



Kittonbolia

KITTOnbolia



Euskara Elkarte

Urteroko moduan, opariz bete genuen Arrate eta zortea izan zen nagusi Irailaren 8an. Zuen laguntzarik barik ez litzateke posible. Eskerrik asko ere parte hartu duzuen denda eta enpresa guztiei!!!

• Alfa



- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe



- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak



- Baglietto
- Basik
- Batzokia
- Benicoba
- Blanca loradenda

• Burbujas y más • Cadenas Iris



- Calefacciones Eibar
- Capi
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- Drach
- E&M
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- Eklipse



- El Cantón de la Avenida



• El Corte Ingles



- Emankor taldea
- En boga ileapaindegia
- Eroski Hipermerkatua
- Errebal kirolak
- Eskarne jatetxea
- Eslune
- Esteban Oroz



- ...eta kitto!
- Farmalur
- Gar Men
- Gerritek
- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Hodei taberna
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane

OSTALARITZA - VENDING

Zure zerbitzura

ostalaritza • enpresentzako •
erregistro eta gestio sistemak




Polonia Ekeberri 14-16 • EIBAR


Tel: 943 20 51 12

Fax: 943 20 17 64

urkotronik@urkotronik.com



• Jauregui



- Jaz- Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia



- Kerala
- Ketesa
- Kinkila
- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Lakett
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide




- Lola's
- Mamacas
- Manpel
- Marian-Idoia spa
- +qwapos
- Meka-Hotel
- Mega


- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Neure
- Orbea



- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa



- Solera Estankoa
- Su Beroa-Oishi
- Su Ta Gar
- Talleres AIBE
- Tribeka

• Trinkete



- Udalaitz
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zero
- Zurkulu

Eskerrik asko parte hartu duzuen danori!



bertso-saiua



bertso-afarixa



dantza-txapelketia



paella lehiaketia



igoeria pausutik




herri-afarixa




MP5



gau kontzertua




Ze Esatek!




DJ jaixa



prozesiñua



Arrateko Amaren dantzak



jubilauendako bazkarixa



Joselu Anaiak


herri-kirolak



idi-probak



gaztetxiaren aldarrikapena



Simon Aldazabal igoerak aurreko marka guztiak gainditu zituen

MARKA BAT BESTEAREN ATZETIK: HORRELAKO PARADA ESKAINI ZIGUN LASTERKETAREN XVI. EDIZIOAK, parte-hartzaileen kopurutik hasita. 50 gizona eta sei emakume izan ziren Klub Deportiboaren aurrean emandako irteera puntuan. Bost kilometro eta erdiko penditza gogorrek, gainditu ondoren, errekorrek bata bestearen atzetik heldu ziren eta: Horrela, Loiu bizi den El Hassan Oubaddi marokotarrak, 25 minutu eta bi segundoko denborarekin, probaren marka berria ezarri zuen, Jon Garrausen denbora bi segundotan hobetuz; emakumeetan, bestalde, gure herrian bizi den Cristina Loeda galiziarrek Nerea Amilibiaren marka hobetu zuen, errekorra 32'21"tan lagaz. Igor González izan zen eibartar onena, 5. postuan sailkatuz eta, beterranoen mailan, honakoak izan ziren onenak (denak ere eibartarrak), baikoitza bere mailan: 44 urtera arte, Jose Mari Bernedo; 54ra arte, Iñaki Alday; 64ra arte, Josu Elejalde; eta 65etik gora, Fernando Serrano. Emakumeen arloko lasterketan, Ane Ziaran 3.a izan zen eta Aitziber Urkiola 5.a.




Nerea Amilibiaren marka gainditu zuen Cristina Loedak aurten.

Arku tiraketan jarduteko ikasturtea hasi dute Mogel-Isasin

AZKEN URTEETAKOARI JARRAITUZ, EIBARKO ARKULARIAK TALDEKOEK HAUR ETA HELDUENTZAKO URTE OSOKO IKASTURTEARI ekin diote, bai hastapen zein hobekuntza mailatan. Klaseak Mogel-Isasi institutoan emango dira eguaztenetan: umeen kasuan, 18.00etatik 19.30etara arte, eta helduenentzako, 19.00etatik 21.00ak arte. Materiala Arkulariak taldeak ipiniko du eta interesatuta daudenek 639-266340 eta 94-4261468 telefono zenbakietara deitu dezakete, edo bestelako informazioa jaso www.arkulariak.net webgunean.

Hilaren 27an hasita, capoeira ikastaroa Kalamuan

KALAMUA JUDO TALDEAK CAPOEIRA IKASTAROA ANTOLATU DU, UMEENTZAKO ETA HELDUENTZAKO. Hasteko, hilabeteko proba egingo dute, irailaren 27an hasita, eta horren arabera antolatuko dituzte hurrengoak. Arte martzial horretan ibilbide luzea egin duen Igor Ezpeletak emango ditu klaseak eta izen-ematea zabalik dago honezkero Kalamuako lokaletan.



Capoeirak kirola, abestiak, musika eta kultura batzen ditu eta, aurkaria garaitzea baino, jolasa bilatzen du, bi lagun arteko elkarrikitza erritmikoa eskuratu arte. Borroka arte ikusgarri hori portugaldarrek Afrikatik Brasilerara eramandako esklaboek sortu zuten.



Illescsek mugimendua egiten Alex Aranzabalen aurkako partidari.

Aranzabalek berdindu egin zuten Illescas handiarekin xakean

EIBAR FOBALL TALDEKO PRESIDENTEAK XAKEA NAHIKO BAZTERTUTA BARDU ERE, ikasitakoa gordetzen ondo dakiela erakutsi zuen zapatuan Miramar jauregian jokatutako xake erakustaldian. Miguel Illescas Maisu Handiak probintziako 26 xakelariri egin zion aurre, aldi berean jokatutako beste hainbeste partidatan, bi bakarrik galduz, hamar berdinduz eta beste ha-

malautan garaile irtena. Alex Aranzabalek eta Kataluniako maisuak berdinketa adostu zuten, azken honek damaren peoiarekin egindako irteerari defentsa holandarrarekin erantzun eta gero: www.deporeibar.com/xakea webgunean ikusi dezakezue partida komentatuta. Julen Garro Deporrekordezari gazteak ere aukera izan zuen Miguel Illescasi aurre egiteko.



Diana elkarteko ehiza lehiaketan parte hartu zutenak.

Eskualdeko ehiza txapelketa jokatuko da bihar Zambranan

ZAMBRANAN, OHIKOA DENEZ, ETA GOIZEKO 08.00-ETAN HASITA. BERTAN IZANGO DIRA DIANA (Eibar), La Unión (Elgoibar) eta Kilimon (Mendaro) elkartetako lehiaketa horretarako sailkatua. Bakoitza epaile lanetan jardungo duen beste ehiztari batekin joan beharko da txapelketara. Txakurrarekin egiten den ehiza txiki modalitate horretako Diana elkarteko txapelketa jokatutako aurreko zapatuan, Zambranan bertan, eta Francisco Trincado izan zen onena, piezetan Iñigo Gisasolarekin berdinduta, baina lehena-go helmugaratuta. Beteranoetan Jose Luis Gisasola izan zen onena. Guztira 13 ehiztarik hartu zuten parte.

Pilota Kluben Arteko txapelketa hasiko da gaur


GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO TORNEOA KADETE, JUBENIL ETA SENIOR MAILETAN JOKATUKO DA, buruz-buru eta binakako modalitateetan, probintziako Pilota Federazioak antolatuta. Klub Deportiboak zazpi bikote aurkeztuko ditu eta gaur Astelehenan, 20.15etatik aurrera, izango dira horietako bi: kadeteen mailakoek lazkaotarren aurka jardungo dute eta, seniorretan, Zubizarreta-Agirrebeña bikoteak Azkoitiko ordezkariak izango dituzte aurrez-aurre.



Bestalde, aurreko domekan, Arrateko Kofradiaren egunean, bertako frontoiak erakusten duen leundutako porlanezko lurra aurrekoetan baino irristakorrago zegoen arren, pilotariak ondo moldatu ziren (batzuk besteak baino hobeto) eta, azkenean, Zubizarreta-Egaña bikotea Unamunzaga-Bengoetxea baino gehiago izan zen (22-13).

Eibarrek Lemona hartuko du bihar

TELEBISTAZ ESKAINIKO DUTEN PARTIDUAN, LIGAKO BOSGARREN PARTIDUA jokatuko du bihar Manixen taldeak Lemonaen aurka. Taldea hazitzen doan seinaleak badiren arren, sailkapenean badu oraindik tartea Eibar Foball Taldeak gora egiteko. Aukera polita izan daiteke bihar, Lemona talde indartsua Ipuruan bisitari izango den honetan. Bertan dihardute jokatzen lehen Eibarren jardundako hiru jokalarik: argazkiko Jon Gaizka Apraiz eta Javier Gurrutxaga defentsekin batera, Imanol León erdilaria. Bestalde, atzo eguerdian Espainiako Foball Federazioan egindako zozketan Eibar-ek, libre geratzea lortu ez bazuen ere, ez zuen zorte txarra izan, etxean hartuko baitu Ponferradina urriaren 12an.



Sergio Salgado eibartarra Euskadiko squash selekzioarekin

ASTEBURUAN MADRILEN JOKATUTAKO ERKIDEGO AUTONOMIKOEN ARTEKO TXAPELKETAN, Euskadik 11. postua eskuratu zuen, bertako madrildarren aurkako norgehiagokan galdu eta gero: egia esateko, berdindu egin zuten bai irabazitako partiduetan eta baita set kopuruan, baina puntuotara galtzaile irten ziren eta horrek ez zien laga aurrera jotzen. Sergio Salgado Klub Deportiboko ordezkaria izan zen taldean eta, berak 3-1 irabazi arren, bestelako emaitzek ez zieten lagundu aurrera egiten. Partidu hori galduta, Gaztela - La Mantxakoekin jokatu zuten hurrengo eta hor 3-1 nagusitu ziren Euskadiko ordezkariak, tartean Salgadorekin garapenarekin.



Salgado, ezkerretik lehena, Deportiboko taldekideekin.

Orientazio ikastaroak egiteko aukera bi urrian

GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOAK ANTOLATUTA, URRIAREN LEHENENGO ASTEBURU BIETAN orientazio ikastaroak egiteko aukera izango dute mendizaleek. Horrela, hilaren 1ean eta 2an iparrorratza erabili ahal izango dute eta hurrengo asteburuan -urriak 8 eta 9- GPS-a lagun dutela. Ikastaro bietan mapak zelan erabili, tekniken aplikazioa, mendiko ibilbideen antolaketa eta "galduta" egotzeri zelan aurre egin izango dira jorratu beharrekoak. Informazio gehiagorako, www.gmf-fgm.org webgunera jo dezakezue.

Hamalau talde izango ditu aurten ere foball-zaletuen Ligak

BIHAR HASIKO DA KIROLJOKOAK BABESTEN DUEN FOBALL-ZALETUEN LIGAREN EDIZIO BERRI BAT, oraingoan ere hamalau talderekin. Isasiko Kiroljokoaren lokaletan aurkeztu zuten txapelketa martitzenean eta lehenengoko jardunaldiak honako partiduetan izango ditu: bihar zapatua, 09.00etan, Durango-Esmorga eta Caserío Xok-C. Dental Ekoden; 10.30etan, EzDok-Living; eta 12.00etan, Tankemans-Murillo/Nazario. Etzi, bestalde, honakoak izango dira neurketak: 09.00etan, Areto-Azkena; 10.30etan, Txoko-Alkideba; eta 12.00etan, Teknografik-Koskor.


Urkiko nesken bigarren taldea osatze bidean

URKIKO EMAKUMEZKOEN SEKZIOAK DEIALDIA EGIN DU FOBALLAZ GOZATZEKO GOGOA DUTEN 1998an eta 1999an jaiotako guztiendako. Urkiko bigarren taldea jokatzekeko interesatuta daudenek martitzenetan eta barixakuetan egiten dituz-

ten entrenamenduetan aurkeztu dezakete euren burua edo, bestela, honako telefono zenbakietara deitu dezakete: 691-536425 (Alberto Lamariano) eta 943-701904, hona 18.30etatik 19.30etara (Calderón-enganatik edo Txus-enganatik galdetuz).



"Sabén aquel que diu..." Seguru askori beltzez jantzitako gizon bizardunaren irudia datorkiola. Eugenio txiste kontalari kataluniarrarena. Orain dela 10 urte joan zitzaigun tragoa eta zigarroarekin eskuan txisteak kontatzen zituen gizona, baina Reugeniok Gerard Eugenio-ren semearen eskutik bere txisteak ekarriko dizkigu bihar 20.30 eta 22.30etan.



GERARD JOFRA, Eugenioaren semea:

"Eugenio umorearen erreferentea da"

- **Eugeniok bere lehen LP-a eta kasetea 1979an grabatu zituen. Non geratu dira sasoi haiek!**

Bai, tira, baina gaur egunean ere ez pentsa, gauzak ez dira gehiegi aldatu. YouTube-n Eugenioaren izena ipiniz gero mila txiste aurki ditzakezu eta seguru horrela egiten duela jendeak.

- **iPodaren sasoi honetan ez da, bada, arrunta izango koitxean edo autobusean, adibidez, txisteak entzuten joatea.**

Begira, nire aita omentzeko asmoarekin garatu nuen proiektu hau Berarekin lan egin nuen, berarekin bidaiatu nuen, eta oso goiz laga bagintuen ere, umoreari dagokionez erreferentea izan dela esango nuke. Ez nekien nola omendu ahal nituen bai aita, bai ama: txisteen bilduma ateratzea, liburua... baina hori eginez gero Eugenioaren semea bere aitaren izenarekin dirua egiten ari dela pentsatuko luke jendeak. Ba inolaz ere. 'Sabén aquel que diu' ekoizpen-etxea sortutakoan bere diskografia doan ipini bainuen webgunean. Hor ikusi nuen jendeak txisteak nahi zuela autoan doan bitartean entzuteko.

- **Ohiturak, beraz, ez dira hainbeste aldatu.**

Ez. Gainera, umorea oso garrantzitsua da sasoi honetan.

- **Nola sortu zenuen ikuskizuna?**

Nire aita imitatzen zuen baten deia jaso nuen. Reugenio zen. Esan beharra dago, Eugeniok imitatzailer asko izan dituela, baina orain eskaintzen duguna imi-


tatzetik haratago doa. Beno, imitatzailer hura ikusi, laguna egin eta 2009an taberna batean, lagun artean, eszenatokira igo eta ikuskizuna eskaini zuen. Lagunen aurpegia ikusita, pentsatu nuen ez zegoela omenaldi hobirik hori baino. Ordutik hona urte bi daramatzagu lanean, 400 ikuskizun eskainita, beste berri bat aurkeztar Bartzelonan eta 22an zerbaiten hasiera izango den liburua ere aurkeztuko dut. Pozik nago emaitzaz eta ikuskizuna ikustera doan publikoaren profilaz.

- **Zergatik?**

Eugenioaren publikoa 50 urtetik gorakoa da normalean, baina antzerkian 10 urteko umeak ere ikusten ditut. Hori izan da nire ezustekoa. bi edo hiru belaunalditako pertsonak jasotzen ditugu. Laukoak ere! Eraikita zegoen zerbaiten gainean zerbait gehiago eraikitzen dihardugu eta, horrela, batzuek lehen ikusi ezin izan zuten zerbait ikusi dezakete orain.

- **Tragoa eta zigarrotxa eskuan helduz txisteak kontatzen zituen Eugeniok. Gaur egun, ordea, ezin da erre espazio publiko itxietan. Arazorik izan du zenu zentzu horretan?**

Ez. Mundu guztiak daki erretzea txarra dela, baina gaur egun landare sendagarriekin egindako zigarrotxoak daude eta efektu bera lortzen da. Kopa, bestetik, laranja kolorezko zerbaitekin betetzen dugu. Berak ere horrela egiten zuen, batek daki whiskia edo zer zen.




Maite Arriagaren klasean diharduten ikasleen lanek hasi dute ikasturtea. / EKHI BELAR

Topalekuak ikasturteari ekin dio



AURREKO ASTEAN EKIN ZIOTEN TOPALEKUAN IKASTURTEARI, MAITE ARRIAGA ARTISTA PLASTIKOAK ELKARTEAN BERTAN EMATEN DITUEN klaseetako

bost taldeen inguruko lanen erakusketarekin. Eta gaur arratsaldean, berriz, bakarkako beste erakusketa bat zabalduko dute Zuloagarren kaleko aretoan, Josu Mugaruzaren arte-ibilbidea laburbiltzen duten hainbat lanez osatutakoa hain zuzen ere. Hilaren 25era bitartean martxan egongo den erakusketa ohiko ordutegian ikusteko moduan izango da: astelehene-tik barixakura bitartean 19.00etatik 21.00etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Hiru argazki erakusketa irailerako

EIBARKO KLUB DE-PORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAK IRAILERAKO ARGAZKI ERAKUSKETAK PRESTATU DITU. Depor tabernan Olot-eko argazkilaritza elkarte-koen argazkiak daude ikusgai, El Ambigú ka-



fetegian Jose Maria Sasetaren "Paisajes de luz" izenburuko erakusketa dago martxan eta Portalea tabernan, berriz, Federico Cuenca-ren lanak ikusteko aukera dago. Hiru erakusketak hilaren 30era arte egongo dira ikusgai.



Saria Imanol Arias aktorearentzat

ASTELEHENEAN, HILAREN 19-AN, URTERO KUTXAK EMATEN DUEN "UNA VIDA DE CINE" SARIA JASOKO DU Imanol Arias aktoreak Donostian, Kutxak Andia kalean duen egoitzako areto nagusian. Kutxak aditzera eman duenez, astelehenean 19.00etan emango diote saria akto-

reari, Bilbe V eskultura hain zuzen ere. Saria eman eta jarraian, Imanol Arias protagonista duen "La muerte de Mikel" filma emango dute. Bere aurretik Antonio Mercero (2007), Elías Querejeta (2008), Pedro Oleak (2009) eta Xabier Elorriagak (2010) jaso dute saria.

Erakusketa eta DJ-ak Karrikan


KURTSO BERRIARI EGIN DIOTE KARRIKA TABERNAN, RUBENEN ERAKUSKETA BEREZI BATEKIN: "MEDUELELAVIDA". Erakusketa lau ataletan dago banatuta: serigrafiatutako biniloak eta graffitia, eskultura metalikoa, margolanak akrilikoa eta marrazkiak paperean. Artelanak birziklatutako edota berreskuratutako langaiekin egindakoak dira, artistak kontsumo gabeko sorkuntza eta zabor birziklatuari dioten maitasunaren isla. Bestalde, bihar gauean, 23.30etatik aurrera, DJ Jaia ospatuko da Karrika tabernan. Disko jartzaile saioan parte hartuko duten DJ-ak Beato, Barrene eta Boli izango dira.



"Meduelelavid" lau ataletan banatutako erakusketa eskainiko du Rubenek.

"El precio de la libertad" Zinemaldian

ASTELEHEN ILUNTZEAN, ZINEMALDIAREN BARRUAN, 20.30-ETATIK AURRERA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN "El precio de la libertad", Mario Onaindiaren bizitzan oinarritutako pelikularen estreinaldia eskainiko da. Ana Murugarrenek zuzendutako pelikularen hainbat zati Eibarren grabatu ziren eta extra moduan hainbat eibartarrek hartu zuen parte.



laburrak

AFARIKETAN

Astelehenean ekingo zaio Afariketan programako matrikulazioari: hilaren 19an eta 20an arratsaldean, 16.00etatik 18.00etara egongo da izena emateko aukera Amaña eta Urkiko ludoteketan eta Indianokua gaztelekuan. Hilaren 21, 22 eta 23an, berriz, goizez egongo da matrikula betetzeko aukera -10.00etatik 13.00etara- Indianokua gaztelekuan (Muzategi, 3).

IRAKURKETA KLUBAK

Juan San Martin Liburutegiak helduendako zein umeendako irakurketa klubak antolatu ditu. Helduen kasuan, 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta Eibarren erroldatutakoek lehenotasuna izango dute. Txomin Magdalena Arriagak emango ditu klaseak, Portalean hilerio (urriak 11, azaroak 8, abenduak 13, urtarrilak 10, otsailak 14, martxoak 13, apirilak 10 eta maiatzak 15). Umeen irakurketa kluba urrian hasi eta maiatzera bitartean emango dute. Informazioa eskatzeko eta izen-emateko Pegorara jo daiteke, hilaren 23ra arte.

EUSKERA GURASOENTZAT

Udal Euskaltegiak eta AEK-ek, Udalaren eta ikastetxeen lankidetzaz, bereziki gurasoentzat pentsatuta dauden euskera klaseak antolatu dituzte, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan. Horrekin batera, euskaltegi bietan matrikulazioa zabalik dago, AEKn hilaren 30era arte eta Udal Euskaltegian hilaren 22ra arte.

matrikula zabalik

2011/12 EUSKARA IKASTAROAK

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza



Sostoa 1, 1. solairua

Telefonoa: 943 201 379

eibar@aek.org



Abeslari galiziarren kontzertuaren berri ematen duen kartela. Luar na Lubre taldean jardundakoa da Cedrón.

Rosa Cedrón-en kontzertua Coliseoan

DATORREN EGUENEAN, 20.30-ETAN KONTZERTUA ESKAINIKO DU ROSA CEDRÓN ABESLARI GALIZIARRAK, Jai Productions-ek Kutxaren eta Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako ekitaldian. Rosak biolontxelo eta jotzen du eta, horrez gain, kantatu ere egiten du eta. Berarekin batera bere anaia Javier Cedrón-ek (bioleta) eta Alex Blancok (gitarra) jardungo dute. Eskaintzen duten musika *“oso sentzazio gogorrekoa da, oso barneraino sartzen diren musika eta letrekin”*. Kontzertua Galiziako Kultur Etxeek egingo dute topaketatik aparte antolatu duten arren, jai horretan murgiltzeko aukera bikaina eskainiko duela uste dute antolatzaileek. Gainera, Eibarren egongo dela aprobetxatuta, abeslariari jaialdiko pregoia irakurtzeko gonbidapena egin diote.

Goi mailako musikaria

Rosa “Luar na Lubre” Galiziako folk taldeko abeslari eta biolontxelista izan zen 9

urte eta bost diska grabatu zituen sasoi hartan. Mike Oldfield-ek deituta, Tubular Bells III diskan “The Inner Child” abestia grabatu zuen Londresko Oldfielden estudioan. Gero, diskoaren mundu mailako aurkezpenean Londresen abestu zuen. “Nighth of the Proms” biran ere, “Mondlighth Shadow” eta “To France” bezalako abestiak kantatu zituen Oldfieldekin.

2005. urteaz geroztik bakarka dihardu musika eredu berriak jorratzen eta Galiziako Kultura eta musika folk zeltaren eredu bilakatu da mundu guztian zehar. Bost kontinentetan aritu da abesten eta besteak beste, aurtan Madrilen, Plácido Domingoren omenaldian, tenorearentzat bereziki abesten izan zen. “Luar na Lubre” laga zuenetik, Euskal Herrira abestera datorren lehenengo aldia izango da. Txartelak alde aurretik erosteko aukera dago (14 euro) eta egunean bertan, leihatilan ere salgai ipiniko dituzte (17 euro).

Iñaki Serranoren lehenengo liburua kalean

“DESIO IZENENKO TREN BATEAN”, BI MUTIL GAZTEK INTER-RAIL TXARTELA HARTUTA EUROPAN ZEHAR egiten duten bidaiaren “kronika ganberroa” aurkeztu zuen orain egun batzuk Iñaki Serrano eibartarrak Elkar argitaletxean. Liburuak 128 orrialde ditu eta egunkari itxurako egiturari jarraitzen dio, 30 eguneko bidaiaren inguruko gorabeherak kontatuz. Bere aurreneko liburua bada ere,



Iñaki Serrano (eskuman) berarekin batera beste liburu bat aurkeztu zuen Josu Waliñorekin aurkezpen egunean.

Zuzenbidean lizentziatua eta Administrazioan lan egiten duen Serranok aurretik ere hainbat sari jaso ditu literatura arloko lehiaketetan.

Lehen Sorospen ikastaroa

DYA GIPUZKOAK LEHEN SOROSPEN ETA ROSLE IKASTAROA ANTOLATU DU, ARLO HORRETAN OINARRIZKO EZAGUERAK jaso nahi dituztenentzat. Ikastaroan parte hartzen dutenek egunero aurkitu ditzakegun arrisku egoera nagusiei nola aurre egin ikasiko dute: bihotz-birikien suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak...

Interesatuta dagoen edonorentzako den ikastaroan ez da behar alde aurretik ezaguerarik izatea. Irakasleak DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskolako mediku, erizain eta monitoreak izango dira eta klaseak urriaren 3tik 28ra emanango dituzte, 19.00etatik 21.00etara DYako Eibarko Ordezkaritzan (Pagaegi, 5 behean). Matrikulak 100 euro balio du. Bestalde, azterketak gainditzen dituzten ikasleentzat EHUraiko unibertsitateko 2 kreditu ematen dituen Sorospen Titulua jasoko dute.

GATE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM


LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak


San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARKEL, hillaren 11n hiru urte bete zenduazelako. Patxo potolua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI San Martin, hillaren 5ian bost urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, EGOITZ, abuztuaren 20xan lau urte egin zenduaz-en-eta. Naroa, Markel eta Enekoren partez, asko maitte zaittugu-eta.




Zorionak, ILARGI Aldalur, abuztuaren 28xan urtia bete zenduaz-en-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, NAIA, hillaren 2xan urtebete egin zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat Eibarko famelixaren eta, batez be, Uxueren partez.




Zorionak, UXUE, hillaren 6xan urte bi bete zenduazelako. Laztan potolo bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MAIALEN!!!! Zuk hiru urte. Guk Poztasunaren hiru mende.




Zorionak, MADDI Gutiérrez Lete, gure txirindulari onenaren zazpigarren urtebetetzian. Aupa, txapeldun!



Zorionak, JUNE, astelehena lau urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.




Abuztutik beste morrosko bat dakagu etxian: PEIO. DANELEK primeran zaintzen dau. Muxu pilla etxekuen partez.



Ongietorri julixoko 22xan jaixo zan MIREN Belda Zuluagari. Patxo potolo bat aitatxo, amatxo eta AMAIAren partez.

zinea Coliseoan




"Bad Teacher"

Zuzendaria: **Jake Kasdan**
Aktoreak: **Cameron Díaz, Justin Timbelake, Lucy Punch, Jason Segel**

16an: 22.30
17an: 17.00, 19.45, 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30



Zorionak, UNAX eta NAHIA. Muxu haundi bat bixontzako.



Zorionak, INTZA eta MALEN, bixar eta etzi 4 eta 6 urte beteko dozuz-eta. Gure etxeko printzesak haunditzen doiaz!




"Arriya (La piedra)"

Zuzendaria: **Alberto Gorritiberea**
Aktoreak: **Iban Garate, Ramon Agirre, Sara Casanovas, Begoña Maestre**


16an: 22.30
17an: 19.45, 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30



Zorionak, LUCIA Lorizate García, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu potolo bat ama, aitta eta Marinaren partez.



Zorionak, URKO eta GARAZI Arakistain Mendizabal, hillaren 12xan hiru urte bete zenittuzten-eta. Famelixa osuaren partez.



"Conan el Bárbaro 3D"

Zuzendaria: **Marcus Nispel**
Aktoreak: **Jason Momoa, Ron Perlman, Stephen Lang, Rose McGowan**

16an: 22.30
18an: 20.00
19an: 20.30

"Los pitufos"

17an: 17.00
18an: 17.00

HILDAKOAK

- Rosa Gil Barrios. 79 urte. 2011-VII-29.
- Isabel González Verano. 76 urte. 2011-IX-2.
- Jesus Gallastegi Arana. 84 urte. 2011-IX-4.
- Conchita Azpiazu Iriando. 86 urte. 2011-IX-4.
- Juan Lazpita Garitaonandia. 90 urte. 2011-IX-5.
- Resurrec. De la Iglesia Pérez. 77 urte. 2011-IX-7.
- Juan Apellaniz Etxeberria. 80 urte. 2011-IX-7.
- Constantino Telleria Martínez. 92 urte. 2011-IX-8.
- Eugeni Eguren Agirrezabal. 84 urte. 2011-IX-9.
- Agustín Urbistondo Bilbao. 62 urte. 2011-IX-11.
- Antonia Ibarra Goikoetxea. 79 urte. 2011-IX-11.
- Carlos Del Río Rojo. 62 urte. 2011-IX-11.
- Julio Prieto Bergaretxe. 84 urte. 2011-IX-12.

JAIOTAKOAK

- Soraya Plaza Rubio. 2011-VIII-31.
- Ismael Gómez Rodríguez. 2011-IX-6.
- Ane Cabezas Castro. 2011-IX-7.
- Jokin Sáez Etxeberria. 2011-IX-8.
- Nora Alvarez Mosquera. 2011-IX-9.
- Udane González Cristóbal. 2011-IX-10.
- Ane Lasheras Sánchez. 2011-IX-11.

horoskopoa

ARIES

Plan asko dituzu uda ostean, eta proposamen asko. Baina egunak 24 ordu besterik ez ditu: denbora ondo kudeatu beharko duzu.

TAURUS

Bihotza aztoratuta daukazu. Une bereziak biziko dituzu, baina ez duzu jakingo ondo nora jo: aurrera edo atzera egin behar duzun...

GEMINI

Jendeak zoratu egingo zaitu. Zergatik ez duzu "nahikoa da" esaten? Ordua da kontrola hartu eta gauzak besteen eskuetan ez lagatzeko.

CANCER

Zer duzu buruan? Ez zara konturatzen egiten duzunaz? Ardura gehiago behar duzu eta egiten duzunean hobeto pentsatu.

LEO

Albiste garrantzitsuak jasoko dituzu hurrengo egunotan: albiste zoragarriak izateaz gain, ezusteko ederra ere jasoko duzu. On egin!

VIRGO

Erlaxatu behar duzu: gauzak lasaiago hartu eta merezi duenari bakarrik garrantzia eman. Denbora gehiegi galtzen duzu tontokerietan.

LIBRA

Dena nahi duzu eta hori ezinezkoa da. Batzuetan aukeratu beharra dago: horretarako sasoia helduko zaizu, orain ez bada ere, laster batean.

SCORPIUS

Indar faltarekin sentituko duzu gorputza eta horrek ez ditu asko lagunduko dituzun proiektuetan. Hala ere, borrokalaria zara zu.

SAGITTARIUS

Eman eta eman zabilta, eta gutxitan jasotzen duzu zerbait. Eskuzabala izatea oso ondo dago, baina inozoa izateraino ez. Ikasiko duzu.

CAPRICORNIUS

Opariei ezet esatea ez da oso elegantea, baina batzuetan badaude jaso nahi ez diren opariak. Ezet esateko ausardia izango al duzu?

AQUARIUS

Ametsak batzuetan bete egiten dira, baina ez da oso komenigarria ilargian bizitzea. Errealitateak horrelako zoezer erakutsiko dizu.

PISCIS

Aste nahiko aldrebesa biziko duzu... eguaztenera arte. Hortik aurrera dena alde izango duzu eta irrifareak ez ditu ahotik alde egingo.

Barixakua 16

PLAY-BACK LEHIAKETA

18.00.- II. Play-back lehiaketa. Izen-ematea disko departamentuan. El Corte Inglés-ean.

Zapatua 17

WORLD-KAFEA

11.00.- "Amodio erromantikoa". Untzaga plazan.
12.00.- Master Class Body Combat, doan. Izen-ematea disko departamentuan. El Corte Inglés-ean.

BIEN APARECIDA JAIK

16.00.- Tute txapelketa eta musika emanaldia. Jardinetan kaleko Kantabriako Etxean.

PLAY-BACK LEHIAKETA

18.00.- II. Play-back lehiaketa. Izen-ematea disko departamentuan. El Corte Inglés-ean.

UMORE IKUSKIZUNA

20.00.- "Reugenio". Sarrera: 12 euro alde aurretik, 17 euro leihatilan. Coliseoan.

DJ JAIA

23.30.- Beato, Barrene eta Boli DJ-ak. Karrika tabernan.

Domeka 18

ARRATEKO JAIK

09.00.- Arrate izenekoen jaiaren XIV. urteurrena. Oinez irteera Untzagatik.

BIEN APARECIDA JAIK

12.00.- Meza, San Agustin elizan.
13.00.- Piskolabisa.
15.00.- Bazkaria, Eskarne jatetxean.



Eguena 22

GALZIAREN EGUNA

18.00.- Domekara arte zabalik egongo den karparen inaugurazioa: Galziako produktuen dastaketa, 500 muskuilu kilo doan, musika zuzenean...

KONTZERTUA

20.30.- Rosa Cedrón-en kontzertua. Sarrerak: 14 euro alde aurretik, 17 euro leihatilan. Coliseoan.



lehiaketak

- **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.** Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 7ra arte*, Pegoran.
- **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.** Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 7ra arte*, Pegoran.

bekak

- **Juan San Martin ikerketa beka.** Gaia: Mendizaletasuna. Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran edo www.eibar.net helbidean. Irailaren 1etik urriaren 15era arte.

dirulaguntzak

- **Umeak Eskolara eta Dirulaguntzak Ikasleei.** Informazioa eta eskaerak: Abenduak 1era arte, Pegoran.

SUDOKUA

		8		7		3		
	3							5
		9	8		5	2		
	8		5		7			9
				6				
	1		9		3			4
		3	6		8	1		
	7							8
		5		2		4		

DENBORAPASAK

8	4	8	1	3	2	9	5	7
9	1	2	8	7	5	3	6	4
3	5	7	9	4	6	2	8	1
2	8	4	5	6	9	7	1	3
5	6	1	7	2	3	8	4	9
7	3	9	4	8	1	5	2	6
1	9	3	6	5	8	4	7	2
4	2	5	3	1	7	8	9	6
8	7	6	2	9	4	1	3	5

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Irailaren 25era arte
JOSU MUGURUZA artista plastikoaren lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- Irailaren 30era arte
OLOT-EKO ARGAZKILARITZA ELKARTEkoen argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- JOSE MARI SASIETA**ren "Paisajes de luz" argazki erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*
- FEDERICO CUENCA**ren argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*
- Azaroaren 23ra arte
"MEDUELELAVIDA" RUBENen erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

* Jarraian doazen lehenengo bost ikastaroetako matrikula: Irailaren 30era arte, Pegoran (5 euro eibartarrek, 7 euro besteeek).

ikastaroak

- **"Nork dio beldurra Simone de Beauvoir-i?"**.
Noiz eta non: Urriak 6 eta 20, azaroak 3 eta 17, 18.30etatik 20.30etara, Andretxean. *
- **"Zoru pelbikoa indarzteko ikastaro aurreratua"**.
Noiz eta non: Azaroaren 2tik 28ra, eguazteno, 18.00etatik 19.00etara, Portalean. *
- **"Gure erotismoa: gorputzetik abiatuta"**.
Noiz eta non: Urriak 7 (18.00etatik 21.00etara) eta 8 (10.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.00etara), Portalean. *
- **"Gure erotismoa: sedukzioa eta zentzumenak"**.
Noiz eta non: Azaroak 11 (18.00etatik 21.00etara) eta 12 (10.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.00etara), Portalean. *
- **"Gure erotismoa: sedukzio jolasak"**.
Noiz eta non: Abenduak 2 (18.00etatik 21.00etara) eta 3 (10.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.00etara), Portalean. *
- **Irakurketa klubak (helduendako eta umeendako)**.
Noiz eta non: Urriaren hasita, hilero, Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Irailaren 23ra arte, Pegoran.
- **Sektore turistikoarentzako ikastaroak**.
Noiz eta non: Irailak 19, urriak 17, azaroak 21 eta abenduak 12, 09.00etatik 13.00etara Debegesan. Informazioa eta izen-ematea: 943820110 (Beatriz) edo beascobar@debegesa.com helbidean.
- **Afariketan**.
Matrikulazioa: Irailak 19 eta 20, 16.00etatik 18.00etara ludoteketan (Amaña,Urki eta Indianokua gaztelekuan). Irailak 21, 22 eta 23, 10.00etatik 13.00etara Indianokua gaztelekuan.

farmaziak

- 16, barixakua**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 17, zapatua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 18, domeka**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 19, astelehena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
- 20, martitzena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 21, eguaztena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 22, eguena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 23, barixakua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Amañako dorreetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komun handia, balkoi bi, trasteroa eta garajea. Tel. 626-438733 eta 679-342893.

– Pisu berria (5 urte) eta trasteroa salgai Mendaron. Logela bi. 80 m². Eguzkitsua. 170.000 euro. Tel. 690-787891.

– Pisu salgai Ipuruan. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Iggogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 690-310927.

1.2. Errentan

– Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.

– Iparragirre kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 618-086191.

– Lan arrazoiak direla-eta, Ermua etorri bazara epe zehatz baterako, pisua alokatuko nizuke Ermua erdialdean. Gutziz jantzia eta igogailuarekin. Tel. 636-257546.

– Pisu alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 687-537371.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Amañan lokala alokatzen da. 180 m². Argitsua eta autoendako sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.

– Garaje itxia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko (13.30-16.00/20.00-22.30). Nagusiak zaintzen eta garbiketak lan egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 695-303237.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da garbiketak lan egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-100602.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 617-571210 eta 943-200994.

– Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 688-618959.

– Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-517025.

– Neska euskalduna eskaintzen da garbiketak egiteko, umeak zaintzeko, sukaldean jarduteko eta dendarri moduan. Tel. 662-471270.

– Bertako erizain laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ile-apaintzaile tituluaarekin (unisex). Tel. 695-898349.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 690-154754.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 605-129530.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 603-846740.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informea. Tel. 662-252150.

– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 651-836353.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 686-389493.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserriko beharrak egiteko. Esperientzia. Tel. 630-031218.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziakin. Tel. 662-252150.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-826434.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 630-365137.

– Neska eskaintzen da 10.00etatik 17.00ak arte nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 679-910991.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da gizon nagusi baten etxea zaindu eta janariak prestatzeko. Astelehenetik barixakura, egunero bi ordu. Ordutegi malgua. Tel. 696-536903. Cristina.

– Unibertsitatean diharduen neska euskalduna behar da arratsaldez umeak zaintzeko. Tel. 605-714109.

– Ugan Klubak pilates eta spinning monitorea behar du. Bidali kurrikulumak ugan.klub@euskalnet.net helbidera.

– Neska euskalduna behar da kontsulta harrerarako, amatasun baja bat kubritzeko. Tel. 943-203050.

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 687-044311.

– Sukaldaria behar da Kultu tabernan. Tel. 685-738435.

– Kamarera/o behar da extra moduan Arrateetarako. Esperientzia eta autoarekin. Tel. 677-638184.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– DBHko 4. mailako ikasleak irakaskuntza behar du klase partikularrak jasotzeko. Tel. 686-909088.

5.2. Eskaintzak

– Ingeleseko klaseak ematen ditut. Erresuma Batuan jaioa eta tituluduna. Esperientzia. Tel. 639-434668.

– Ingenieritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.

– Gitarra elektrikoko klaseak ematen ditut etxetz-etxe. Tel. 679-740061.

– Ingeleseko klaseak ematen ditut, heldu eta unibertsitariendako. Tel. 628-061783.

– Matematiketako klase partikularrak ematen ditut, DBH ikasleendako. Tel. 695-718855.

– Informatikako klaseak ematen dira: web orriak nola egin, ordenagailuaren arazoak zelan konpondu.... Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Kotxe-kapota, silla eta maxi-coxia salgai. Egoera onean. 200 euro. Tel. 628-061783.

– “La vida en los océanos” bilduma originala salgai. Oparitzeko proposa. 10 CD-Bideo. 30 euro. Tel. 679-740061.

6.2. Eman

– Urte eta erdiko alemaniar artzai txakurra oparitzen da. Tel. 628-886098.

6.4. Bestelakoak

– Bideoak pasatzen dira VHS formatotik CD-ra. Merke. Tel. 679-740061.

ONDO ENTZUTEN DUZU?



Natural Optics PLAZAOLA-n irtenbidea aurkituko diegu zure entzumen arazoei

Audifonoen egokitzapena eta entzumen-azterketak
Zaratari eta urari aurre egiteko molde eta tapoiak
Bakoitzari egokitutako jarraipen eta arreta

Errebal, 14 20600 Eibar GIPUZKOA 943 202 137 plazaola@naturaloptics.com

> **klinika kortazar** **Gidabaimenak eta armabaimenak**

ARTOLA



ARTOLA
Tokia gordetzeko
943206348 *jatetxea*

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Paletilla iberikoa
Etxeko foie-a*

Ganba, perretxiko eta espinaka nahaskia

*Legatza plantxan edo
Bakailaoa pikillo saltsarekin*

*Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a*

*Degustazio postrea edo
Gazta mousse-a edo
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

25 € + BEZ

Astelehenetik barixakura
EGUNEKO MENUA
15 €



dena 51,50 €

fitness

aerobic

aquatonic

spinning

pilates

igerilekua

sauna

...

KALITATEA

eta 14-18 urte bitartean bazaude

40 € !!!



ZURE ESKU

F. Calbetón, 21 EIBAR

Tel. 943 82 04 52

ugan.klub@euskalnet.net



UR JARDUERAK:

4 hilabetetik

6 urte bitartekoentzat

igeriketa

(ur temperatura 33ºtan)

MUGI ZAITEZ

UGANen!

Instalazioak nahi duzunean eta nahi bezain beste erabiltzeko aukera